

Zer da? Zertarako da?

Titularraren helbide fiskala edo bestelako datu pertsonalak aldatzeko, udal tasa eta zergen ordainketei dagozkien jakinarazpenei begira.

Zer da helbide fiskala?

Pertsona fisiko batentzat: ohiko etxebizitza.
Pertsona juridiko batentzat: egoitza soziala.

Nork eska dezake?

Interesdunak edo haren legezko ordezkariak


Aurkeztu beharreko agiriak

[eskaera inprimakia](#) eredu normalizatua.

Ordezkaritza egiaztatzen duen agiri normalizatua

Alokairuan egonez gero, alokairuaren kontratua

Nola eskatzen da?

 **Aurrez aurre:** hhz-Herritarren Harrera Zerbitzuan (Udaletxeko beheko solairuan). Astelehen, asteazken eta ostiralean : **08:00 – 14:00**.

Astearte eta ostegunetan **08:00-19:00**

Uztaila eta Abuztuan astelehenetik ostiralera **08:00-14:00**

☎ **Telefonoa:** ezin da telefonoz eskatu. Dena den informazio gehiago eska dezakezu, edo eskaera eta informazio-orria etxera bidaliko dizkizugu, **943 337000** telefonora deituz.

: **Internet:** www.hernani.eus web orriaren bidez eskaera-orria bete eta Udaletxean aurkez dezakezu.

✉ **Posta arrunta:** ezin da postaz eskatu

Zenbat kostatzen da?

Doan

Prozeduraren epea

Unean bertan

Eskaera jaso ondoren jarraitu beharreko prozedura

1. Helbide fiskala eta datu fiskalak aldatzeko eskaera jaso eta datuak egiaztatu.
2. Eskaera erregistratu, sartu Espedienteen kudeaketarako Programan eta datuak USOA aplikazioan aldatu.
- 3.

Tramitatzeko ardura duen udal saila

Errenta Saila

Informazio gehiago: 943 337046 edo errenta@hernani.eus

Oharrak

1. Zergadunak ez badio jakinarazi Zerga Administrazioari zerga helbidea aldatu duenik, jakinarazpenak egiteko ulertu ahal izango da bere helbidea zerga izaera duen edozein dokumentutan hark aitortu edo adierazitako azkena dela.
2. Zergapekoak zerga helbidea adierazi ez badu, bitartean, bera titular gisa ageri den edozein ondasun higiezin edo ustiapen ekonomikoren kokalekua hartuko da halakotzat.
- 3.

Araudi aplikagarria

- *Martxoaren 8ko 2/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra.*